# Gora egin du lanaldi osoko lanak dituzten 30 urtetik beherako langile gazteen portzentajeak

***Eta gazteen batez besteko soldatak igo dira***

Euskadin zeregin nagusia lan egitea duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen kopurua guztizkoen herena da, % 35,4 hain zuzen ere.

Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa beren zeregin nagusiaren arabera 2017an (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Gazteak eta enplegua Euskadin 2017*)

16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen ia erdiak (% 47,6) aldi baterako kontratua du eta, gainera, horrelako kontratuak dituztenen portzentajea handitu egin da azken urteotan.

**Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko langile gazteen kontratu motaren bilakaera (%)**




** Kontratu mugagabeak dituztenen datuak aldizkako finkoak eta kooperatibistak ere biltzen ditu.*
*** 2000 eta 2004 urteetan "ez du kontraturik" aukera beharrean "Noizbehinkako lanak" kategoria zegoen; alderaketa egiteko bata eta bestea parekatu dira.*

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Gazteak eta enplegua Euskadin 2017*)

Horrek ez du esan nahi beste arlo batzuek ez dutela hobera egin. Hamar langile gaztetik bederatzik Gizarte-segurantzan kotizatzen dute eta lanaldi osoko lanak dituztenak 2015ean baino gehiago dira orain, emakumeen artean batik bat.

**Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko langile gazteen lanaldi motaren bilakaera, sexuaren arabera (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Gazteak eta enplegua Euskadin 2017*)

Horrek eragina izan du soldaten igoeran, batez ere emakumeen soldateen kasuan; beraz, emakume eta gizon gazteen arteko soldata-arrakala txikitu egin da aurreko urteetakoekin konparatuta eta 132 eurotakoa da 2017an.

**Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko langile gazteen hileko soldata garbiaren bilakaera, sexuaren arabera (euroak)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Gazteak eta enplegua Euskadin 2017*)

Edozelan ere, emakume gazteen artean gizon gazteen artean baino gehiago dira aldi baterako kontratua dutenak (% 52,4 eta % 43,1, hurrenez hurren) eta gutxiago dira beren kontura lan egiten animatzen direnak (30 urtetik beherako emakume okupatuen % 4,4 eta gizon okupatuen % 12,0). Eta, ikusi berri dugun bezala, gizonek baino lanaldi partzial gehiago dituzte emakumeek, eta soldata apalagoak jasotzen dituzte.

Bestalde, behera egin du beren enplegua urtebeteko epean gal dezaketela edo beren lan-baldintzak oker daitezkeela uste duten langile gazteen ehunekoak, % 42,9tik % 29,0ra (emakumeek gizonek baino aldi baterako kontratu gehiago dituztenez, arrisku handiagoa sumatzen dute), eta handitu egin da ikasitakoarekin oso lotutako lana dutela diotenen ehunekoa (2013an % 22,3; 2015ean % 33,1 eta 2017an % 43,4).

Horrenbestez, behera egin du lana aldatu nahi duten langile gazteen ehunekoak, eta baita, horren ondorioz, beste enplegu bat bilatzen ari direnen ehunekoak ere.

**Lana aldatu nahi duten 16 eta 29 urte bitarteko langile gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Gazteak eta enplegua Euskadin 2017*)

Aipatutako datuak Gazteen Euskal Behatokiak kaleratu duen "Gazteak eta enplegua Euskadin 2017" izeneko ikerketatik datoz. Ikerketa hori Gazteen Euskal Behatokiaren web orrian aurki dezakezu.